



DDOS erasoei erantzuna

Checklist

- Delitu izan daitekeen egitatea denez, jarri dagokion salaketa ertzain-etxe hurbilenean edo jakinarazi SCDTI Informazioaren Teknologietako Delituen Atal Zentralari mezu elektronikoa bat igorri di@ertzaintza.eus helbidera dagozkion neurriak hartu dituzten.
- Erregistratu erasoarekin lotutako informazioa, hala nola sare-fluxuak, edo zerbitzarien erregistroak eta segurtasun-sistemak. Datu horiek garrantzitsuak dira ondorengo azterketa baterako eta egitateak salatu ahal izateko.
- Ziurtatu komunikazio-kanalen bat irekita eduki ahal izatea, hala nola webgune bat non bezeroei informazioa eta harremanetarako datu alternatiboak (telefonoa, faxa, helbide elektronikoa) eman ahalko zaizkien.
- Aztertu eraso eta ezarri defentsa-estrategia bat:
 - Eraso IP helbideen kopuru jakin batean sortzen bada, nahikoa izan liteke helbide horiek routerrean edo segurtasun-sistemetan iragaztea. Datuen bolumenak erabilgarri dagoen banda-zabalera gainditzen badu, agian ISP Interneko zerbitzuen zure hornitzailearekin jarri beharko duzu harremanetan.
 - Eraso egindako baliabideetarako sarbide legitimo gehienak herrialde espezifikoetan badaude, geolokalizazio bidez blokeoa oso eraginkorra izan liteke. Haatik, erabiltzaile legitimo batzuk blokeatuak izan daitezkeela izan behar da kontuan.
 - SYN, UDP, BGP eta SNMP gainezkatzeen kasuan, erasoaren jatorrizko IP helbideak faltsuak izan daitezke, eta, hori horrela, kasu horietan ez dauka zentzurik IP helbideak iragaztea, eta erabiltzaile legitimoak ere blokeatu ahalko lituzke. Kasu horretan, ISParekin batera soluzio bat aurkitzeko lan egin beharko duzu, trafiko hori desbideratuz eta iragaziz.
- Erasoak bilakaera izan dezake ezarritako defentsa-neurriak saihestuz. Kasu horietan, egoera berriz aztertu beharko da eta kontraneurri egokiak hartu.

Babesteko moduari buruzko informazio gehiago jakin nahi baduzu, sartu zaitez webgune honetan:

<https://www.basquecybersecurity.eus/eu/>

Aholkularitza profesionala behar baduzu, webgunean eskuragarri duzun Euskadiko ziberseguratsun-hornitzaileen katalogoa kontsultatu dezakezu.